ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2020IPLE0008**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA**

2020-11-24ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2020ko azaroaren 24an, goizeko 9:44tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Mikel Galarza Arrue
- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Unai Dorronsoro Olarra
- Aingeru Galarraga Barandiaran

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2021. URTEKO AURREKONTUAREN HASIERAKO ONARPENA
4. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2020-KALD-0000002-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA
5. ALBIZTURKO HAPO-REN XEDAPEN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA
6. ALBIZTURKO HAPO-REN XEDAPEN ALDAKETA IDAZTEKO HERRITARREN PARTE HARTZE PROGRAMAREN ONARPENA
7. HILERRIKO PROIEKTUA
8. AZAROLA GOIKOAKO PORTXEA
9. ARANZABEKO ERREPIDEA
10. OSTATUKO ERRENTA
11. SAHAREN ALDEKO ETA ABENDUAK 3KO ADIERAZPENEI ATXIKIMENDUA
12. ESPAINIAKO OGASUN MINISTERITZAREN ERREKERIMENDUA
13. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2020-10-26ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2020ko 93 eta 100 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. 2021. URTEKO AURREKONTUAREN HASIERAKO ONARPENA

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2021eko aurrekontuari hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- Erakusketa publikoan jartzea 15 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Argitaratuz. Erakusketa publikoko epean ez bada alegaziorik aurkezten, erabakia behin betikotzat joko da beste erabakirik hartu beharrik gabe.

4. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2020-KALD-0000002-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Idazkari Kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	9.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	13.889,46
9	FINANTZA PASIBOAK	45.554,10
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		**68.443,56**

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	68.443,56
GUZTIRA		**68.443,56**

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

5. ALBIZTURKO HAPO-REN XEDAPEN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA

Albizturko Plan Orokorra (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra) 2018. urtean sartu zen indarrean, baina aldaketa batzuk egin beharra ikusten da:

Etxebizitza zaharrak eraberritzeko prozesuan muga betekin topatu gara: Hirigunean (zona urbana) dauden etxebizitzak gehienez 3tan zati daitezke eta zati bakoitzak gutxienez 125 m2 izan behar ditu.

Metro karratu asko dituzten etxebizitzak badirenez eta gaur egungo beharretara egokitu nahirik, gure asmoa gehienezko etxebizitza kopurua kendu eta gutxienezko m2 kopurua 40koa izatea da.

Horretarako beharrezkoa da Albizturko Plan Orokorra (HAPO) aldatzea, eta behin prozesua irekita beste garrantzi gutxiagoko aldaketa batzuk egiteko ere aprobetxatuko dugu.

Egin nahi diren aldaketa guztiak zehaztu ondoren, Gipuzkoako Aldundiarekin bilera tekniko bat egin zen aldaketa horien bideragarritasunaren inguruan, eta ez dago arazorik hiriguneko etxebizitzetan egin nahi dugun aldaketan.

Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Albizturko Plan Orokorraren (HAPO) xedapen aldaketari hasierako onarpena ematea.

6. ALBIZTURKO HAPO-REN XEDAPEN ALDAKETA IDAZTEKO HERRITARREN PARTE HARTZE PROGRAMAREN ONARPENA

Lurralde-antolamenduko planen prozedurak eta hirigintza-antolamenduko tresnak arautzen dituen 46/2020 dekretuak zera dio:

3. artikulua. Herritarren parte-hartzea lurralde eta hirigintza-plangintza izapidetzean.

1. Lurralde edo hirigintza-antolamenduko edozein figura formulatu, berrikusi edo aldatzeko hasierako erabakiarekin edo ebazpenarekin batera, parte hartzeko programa bat egin beharko da. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko eskubidea izan dezaten.

2. Herritarrek parte hartzeko delako programa laburturik argitaratuko da *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian, administrazio publiko sustatzailearen arabera; informazio-teknologia berrien bitartez hedatuko da, eta, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu, gutxienez:

a) Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituena; horretaz gain, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena bilduko da gida horretan.

b) Jendaurreko bilkurak, non azalduko baitira ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkeztutako alternatiba posibleak.

c) Dibulgazio-materiala: legeriak eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko da, dokumentu horiek hedatzen eta ulertzen laguntzeko.

3. Halaber, zazpi mila biztanletik gorako udalerriek, udal plangintzaren aholku batzordearen erregelamendurik ez badute, erregelamendu hori prestatu eta onartuko dute, plan orokorra formulatzen hasteko udal-erabakia hartu aurretik edo harekin batera. Batzorde horrek nahitaez eta gutxienez planeamendu orokorrari buruzko txostena egingo du.

Albizturko Plan Orokorrean (HAPO) egin beharreko aldaketetarako prestaturiko herritarren parte hartze programa aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Albizturko Plan Orokorraren (HAPO) xedapen aldaketa idazteko herritarren parte hartze programa onartzea.

Bigarrena.- Programa laburturik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

7. HILERRIKO PROIEKTUA

Obra egiteko baimena eman digu Eusko Jaularitzak eta obra burutuko duen enpresa aukeratu behar da kontratazio plataformaren bidez.

Era berean, nitxoetatik atera behar diren gorpuzkien (15 urte daramatenak, 2005 urte artekoak) familiartekoekin harremanetan jarri gara, Albizturko Udalaren asmoen berri eman, eta gorpuzkiekin zer egiteko asmoa duten jakiteko.

Momentu honetan nitxo bakarra dagoenez libre, lehendabizi hezurtegi komunean sartu behar diren gorpuzkiak edo erraustu eta familiak bereganatu behar dituenak aterako ditugu nitxoetatik (eraikiko diren kolunbario berrietan sartuko ez direnak), nitxo batzuk libratu eta denbora irabazteko asmoz.

Beharrezko dokumentu guztiak prestatu eta ahalik eta azkarren hasiko gara lan hauetan.

8. AZAROLA GOIKOAKO PORTXEA

Azarola Goikoako eraberritze lanetan portxea egiten hasi ziren Albizturko Udalaren obra lizentziarik gabe, eta Albizturko Udalak portxea gelditzeko espedientea, legalitatea berrezartzeko espedientea eta zehapen espedientea jarri zituen martxan.

Azarola Goikoako jabeek, bide administratiboa amaitu ondoren, errekurtsoa jarri zuten Auzitegi Kontenzioso-Administratiboan 74/2020 Alkatetza Dekretuaren aurka.

80/2020 Alkatetza Dekretua ere aurreko espedienteari gehitzen saiatu dira, baina epaileak ez duenez onartu, bigarren errekurtso bat jarri dute Auzitegi Kontenzioso-Administratiboan 80/2020 Alkatetza Dekretuaren aurka.

9. ARANZABEKO ERREPIDEA

2020ko irailaren hasieran Aranzabe eta Artutxa arteko errepidera eustorma zati bat erori zen. Ibilgailuak pasa daitezke errepidetik, baina ezin da horrela utzi, kotxe asko ibiltzen direlako errepide hortatik eta dagoen egoeran uztea arriskutsua izan daitekelako.

Gipuzkoako Aldundiari galdetu genion nori dagokion konponketa egitea, eta garbi utzi ziguten eustorma dagoen lurraren jabeei (Aranzabe baserrikoak) dagokiela eustorma konpontzea, eta Albizturko Udalari errepidea garbitzea.

Aranzabe baserrikoekin bilera egin ondoren, garbi adierazi digute eustorma horrek eta goiko bideak gaur egun ez dutela funtziorik betetzen, eta ez duela zentzurik konpontzeak. Beraiek prest daude eustorman geratu diren harriak garbitu eta lurra gastatzeko lur jauzirik gerta ez dadin, eta Albizturko Udalak errepideko harriak kenduko ditu bertatik.

10. OSTATUKO ERRENTA

Abenduan kobratzen da Albizturko Ostatuari urte guztiko errenta, eta nahiz eta 2020. urtea berezia izan den ostalaritzarentzat COVID-19aren pandemiaren ondorioz, kobratuko beharreko errentan aldaketarik ez egitea adostu da, herrian 5 ostalaritza establezimendu daudelako eta denei tratamendu bera eman nahian.

Ostalaritza establezimenduei eman daitezken laguntzen inguruan hausnartzekotan geratu gara.

11. SAHAREN ALDEKO ETA ABENDUAK 3KO ADIERAZPENEI ATXIKIMENDUA

Osoko bilkurak aho batez abenduk 3ko adierazpenari atxikitzea onartu du:

2020KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA
Euskara, aurrerabide
Gizartea euskaraz biziberritzea helburu

Inoiz inork pentsatuko ez zukeen eran jo gaitu gaitzak. Beste horrenbeste, gaitzaren ondorioek. Mundu osoa, gizarte guztiak, egitura guztiak, pertsona guztiok jarri gaitu geure benetako neurriaren aurrean, buruz buru. Kupidarik gabe utzi du agerian ahaztu nahi genukeen zerbait: zaurgarriak gara; zaurituta gaude.

Erantzukizunaren bidetik heldu diogu erronkari, denon indarrak batuz. Bai baitakigu ez dagoela beste irtenbiderik. Euskararen hiztun elkarteak ere sufritu du pandemiaren eragina, bereziki erabilera mailan. Zentzu horretan, erakunde publikoen konpromisoa sendoa eta egindako lana handia izanagatik ere, ezin izan diogu nahi bezala erantzun.

Euskaldunok, baina, ezin dugu ahaztu badela funtsezko ekarpen bat, gizarte-ahalegin itzel eta miresgarri horren osagai ezinbestekoa eta geure esku soilik dagoena: euskaraz egin behar diogu aurre mundu mailako krisiari; euskaraz egin behar dugu ilunpetik argira eramango gaituen bidea; euskaraz sendatuko gara, euskaraz sendatuko dugu geure gizartea; euskaraz besarkatuko ditugu mundu osoko gizakiak. Bat garelako. Euskaraz bat mundu osoarekin.

Horixe da euskaldunok –neurri batean edo bestean euskaraz bizi garen munduko herritarrok, alegia– euskara gero eta gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiliz giza garapenari egiten diogun ekarria. Gizarte kudeaketa aurreratuari gaineratzen diogun balio erantsia.

Banaka heltzen diogu, jakina, euskaraz gero eta gehiago bizitzeko konpromisoari. Nahitaezko zutabea baita norberaren eginahal hori edozein aurrerabidetan, oso bereziki gizarte prozesu konplexuetan, eta horixe da euskara biziberritzea helburu duena ere: gizarte prozesu konplexu bat, ertz eta osagai ugari duena.

Ongi asko dakigu hori mundu osoko euskaldunok.

Badakigu, besteak beste, euskaldunok euskararen hiztun elkartea osatzen dugula, eta Euskaraldiannorberaren erabakimenetik abiatzen dela euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzerakoan inguruan hainbatetan sortzen zaizkigun oztopoak gainditzeko bulkada.

Baina badakigu, era berean, ezinbestekoa dugula elkarrengana biltzen gaituen bulkada ere. Norabide biko bektorea baita euskara eta euskaldunok lotzen gaituena: euskarak herri egiten gaitu; euskal hiztunon komunitateak egiten du euskara orainaren eta etorkizunaren hizkuntza.

Bide horretatik heldu zaizkio beti euskarari aurrerapauso behinenak: norberaren eta gizartearen konpromisoak sendo uztartzetik; unean uneko beharrizanei euskaraz erantzuteko erabaki sendotik; etorkizunerako bidea euskaraz zolatzeko euskal instituzioek, gizarteak eta gutariko bakoitzak egindakotik.

Euskaraldiak eskaintzen digu aurten berriz ere zailtasunak aukera bilakatzeko abagunea, krisia aukera bihurtzeko lanabesa. Ingurumari aldrebesean dator, ezbairik gabe, aurtengoa, eta horrek areagotu egingo du guztion eta bakoitzaren konpromisoaren balioa, administrazio eta erakunde publikoena barne.

Aurtengoan, balio berezi batez apainduko da ahoa bizi, belarria prest eta bihotza kartsu dugun guztion ekimena. Aurtengoan, inoiz baino erabakigarriagoa izango da euskararekiko gertutasunezko keinu praktiko oro, euskal hiztunongandik zein euskararen zabalkundean erdaretatik lagundu nahi dutenengandik datorrela ere.

Esanahi berezi batez jantziko da aurten, ezinbestez, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko ahalegina: egokitu zaigun ataka larritik ateratzeko erabakiari, euskaraz ateratzearen ezinbestekotasuna erantsiko diogu euskal hiztun nahiz euskararen lagun orok.

Izan ere, bagenekien euskaraz zetorrela geroa, euskaraz ere mintzo dela etorkizuna, eta aurten beste zerbait ikasi dugu: egoera zailetatik ateratzeko eginahalean lagungarri dugu euskara, bidelagun ezinbestekoa. Krisialditik sendoago ateratzea helburu dugun honetan, erabil dezagun euskara ere aurrera egiteko lanabes gisa.

Euskaraz biziberritu behar dugulako geure gizartea.
Euskararen ahotsa zor diogulako munduari.
Euskaraz garelako munduko herritar.
Euskara aurrerabidea delako.

12. ESPAINIAKO OGASUN MINISTERITZAREN ERREKERIMENDUA

2020ko azaroaren 23an Espainiako Ogasun Ministeritzaren errekerimenduari sarrera eman zitzaion Albizturko Udalean; bertan aipatzen zen 2018ko likidazioa errebisatu ondoren, 2018. urtean bildutako sarrera ez finantzarioak aurrikusitakoak baino altuagoak izan zirela, eta

diferentzia hori ez zela zorra gutxitzera zuzendu. Hori zuzentzeko beharrezko neurriak hartzeko errekeritzen zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamenduari errekerimenduaren berri eman ondoren, 2020ko azaroaren 26an Albizturko Udalean sarrera emandako dokumentu baten bidez azaldu ziguten egin beharrekoa:

2018. urtean bildutako eta aurrikusitako sarrera ez finalisten arteko aldea 45.554,10 €koa da, eta beharrezkoa da Udalbatzak kreditu gehigarrien espediente bat onartzea 2020ko aurrekontuan, eta horren kargura odainketa bat aplikatzea zorra aldez aurretik amortizatzeko.

Gaia aztertu ondoren Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 45.554,10 €ko kreditu gehigarrien espediente bat onartzea eta horren kargura zorra aldez aurretik amortizatzeko ordainketa bat aplikatzea.

Bigarrena.- Kutxabank-i 45.554,10 € aldez aurretik amortizatzeko eskatzea.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamenduari eta Espainiako Ogasun Ministeritzari erabakiaren berri ematea.

13. GALDERA ERREGUAK

- Yoseba Maroto arkitektoaren baja: Yoseba Maroto, udalari zerbitzua ematen dion arkitektoa, bajan dago ebakuntza baten ondorioz, baina ondo doa errekuperazioa eta abenduak 14ean alta hartzeko asmoa du.

Osoko bilkura, 11:15etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2020ko azaroaren 30ean

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 13:04:35 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:09:03 +02'00'